



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 26a

137. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa ezetsi du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, erronka demografikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).

—Interpelazioa, bide-azpiegituren plan berri bat prestatzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Interpelazioa, ekonomia sozial eta solidarioari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (5. or.).

—Interpelazioa, turismoaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da plan estrategiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazten baitie Gizarte Entitateen Plataforman inplikaturako pertsona, entitate eta kolektibo guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Leireko monasterioaren babes inguruaren mugaketa aldatzeari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (9. or.).

—Galdera, atzerritar adingabeak zenbait kirol-diziplinetan federatzeko arazoei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Mahaiko erabakia, Gizarte Entitateen Plataformari Nafarroako Parlamentuko Domina emateko, plataforma horren ibilbide osoaren aitortzen gisan (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko azaroaren 25ean, ezetsi egin du Navarra Suma talde parlamentarioak 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, erronka demografikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko interpelazioa, erronka demografikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, erronka demografikoaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

Interpelazioa, bide-azpiegituren plan berri bat prestatzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, bide-azpiegituren plan berri bat prestatzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa, bide-azpiegituren plan berri bat prestatzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Interpelazioa, ekonomia sozial eta solidarioari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko interpelazioa, ekonomia sozial eta solidarioari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa, ekonomia sozial eta solidarioa dela-eta.

Iruñean, 2021eko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Interpelazioa, turismoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkezturiko interpelazioa, turismoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, turismoaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da plan estrategikiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita plan estrategikiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan iktusaren arreta integralerako plan estrategikoa taxutu dezan.

Hildako gehien eragiten duten kausen artean, bigarrena da iktusa. Espainian, desgaitasuna eragiten duten kausetan lehena da; demenzietan, berriz, bigarrena.

2013tik 2016ra bitarte, lehen iktuseko 4.333 kasu gertatu ziren Nafarroan bizi diren pertsonen artean; hau da, 1.083 kasu batez beste urtean.

Nafarroako populazioa gero eta zaharragoa denez eta adina iktusa izateko arriskuari oso lotuta dagoenez, goraka egiten jarraituko du iktusa pairatzen duten pertsonen kopuruak.

Aurreikuspenen arabera, Europar Batasunean % 34 igoko da guztira iktus kopurua 2015etik 2035era bitarte.

Biziraupen-tasak hobetu direnez, gero eta pertsona gehiago bizi dira patologia horretatik heldu

diren sekuelekin, halako moduan non zaintza eta errehabilitazio espezializatua behar baitituzte, eta hori zama gero eta handiago da familientzat, gizartearentzat nahiz osasun-sistementzat.

Iktus-kasu berriek 27,17 milioi euroko gastua eragiten diote urtero Nafarroako Foru Komunitateari.

Iktus istemikoa izan duen gaixo baten batez besteko zuzeneko kostua, 2017an egindako kalkularen arabera, 9.357,18 eurokoa da.

Premiazkoa da iktusaren intzidentzia eta iraupen luzeko desgaitasunak sortzeko aukerak murriztea.

Oso handiak dira iktusa pairatzen duten pertsonen kostu ez-sanitarioak eta laneko produktibitatean eragindako galerak.

Iktusak arreta integratu eta integrala behar du, arreta egoki bat ematea erronka bat da –arretazirkuituetako profesionalak sartzan dira hor–, eta arretaren kalitatea hobetu beharra dago, bai. Horrekin erabat ados gaude.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du:

1. Plan estrategikiko bat abiaraz dezan Nafarroan iktusaren arretari ekiteko, iktus pediatrikoaren kodea barne, eta 2022ko Osasun Planari gehitzeko.

2. Prebentzio etengabeko kanpainak egin ditzan, herritarrei informatze aldera arrisku-faktore nagusiei buruz eta bizimodu osasungarria izatearen garrantziari buruz, herritarrek horren gainean duten ezagutza hobetu bidenabar.

3. Osasun arloko profesionalen prestakuntza hobetu dezan, pertsonei eta familiei ematen zaien laguntza hobetzeko.

4. Gaixoen elkarteak gogoan izan ditzan, zeresan handia izan behar baitute erabakiak hartzean.

5. Iktusaren gaineko ikerketaren aldeko apustu irmoa egin dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 17an

Foru Parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazten baitie Gizarte Entitateen Plataforman inplikaturako pertsona, entitate eta kolektibo guztiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi die Gizarte Entitateen Plataforman inplikaturako pertsona, entitate eta kolektibo guztiei, beren lan desinteresatua lagungarria izan baita Foru Komunitateko eta herrialde pobretuetako bizi baldintzak hobetzeko.

Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Gizarte Entitateen Plataformak gure gizartean duen garrantzia.

Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen du Gizarte Entitateen Plataformaren lankidetzaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) sinatzeko.

Nafarroako Parlamentuak uste du desberdinkeriarekin amaitzeko beharrezkoa dela gizarte politika publikoak lantzen jarraitzea.

Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gai sozialei buruzko zenbait solasaldi egiteko, Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Itunari buruzko hausnarketarako lagungarriak izanen direnak.

Nafarroako Parlamentuaren Domina Nafarroako Gizarte Entitateen Plataformari ematearekin aitortza egin nahi zaie plataformaren ibilbide osoari eta hura osatzen duten talde eta entitate guztiei pertsona zaurgarrienekin egiten duten lanagatik eta erakundeekiko lankidetzagatik”. (10-21/DEC-00069).

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa agertzen du berdintasunarekin eta emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte batekin.

3. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du berdintasuneko teknikarien sareak eginiko manifestuarekin, zeinak “Indarkeria bakarra, hamaika modu” izenburupean hamaika modu desberdinen bidez adierazten den indarkeria matxistaren egiturazko izaera jartzen baitu erdigunean eta emakumeen aurkako indarkeria modu oro arbuiazen baititu, eremu eta testuinguru guztietan.

4. Nafarroako Parlamentuak babesten du toki-entitateen bultzada, emakumeen eta neskatoek indarkeriarik gabeko bizitza aske baterako duten eskubidea bermatuko duten neurriak agenda politikoan sartzeko, emakumeen elkarte eta talde

feministekin eta herritar guztiekin batera, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean eta bere ekin-tza planean jasotako betebeharrak betetzen direla ziurtatze aldera, bai eta indarkeria matxistarekin loturiko araudi berrien baliabide desberdinen arteko koordinazio-protokoloak bermatzeko eta Estatu-ituna gaurkotzeko ere.

5. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du beste erakunde batzuekin eta herritarrekin era koordinatuan lanean jarraitzeko, prebentzio, ikerketa eta sentsibilizaziorako eta indarkeria matxista pairatzen duten emakumeek eta haien seme alabei arreta, justiziarako sarbidea eta erreparazioa emateko sustatzen ditugun neurri integralen kalitatea hobetzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak parte hartuko du heldu den ostegunean, 12:00etan Nafarroako Berdintasunerako Institutuak eta Nafarroako Gobernuak Sarasate pasealekuan eginen duten ekitaldian”. (10-21/DEC-00070).

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Leireko monasterioaren babes inguruaren mugaketa aldatzeari buruzkoa.*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko galdera, Leireko monasterioaren babes inguruaren mugaketa aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Prentsan agertu diren informazioaren arabera, Kultura Departamentuak Leireko monasterioaren garapena eragozten zuten murrizketak zuzendu eginen ditu. Hori horrela bada:

Zer ondorio izanen du Leireko monasterioaren babes inguruaren mugaketa aldatzeak?

Iruñean, 2021eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, atzerritar adingabeak zenbait kirol-diziplinetan federatzeko arazoei buruzkoa.*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko galdera, atzerritar adingabeak zenbait kirol-diziplinetan federatzeko arazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Orain dela zenbait egun, Eskubide Sozialetako Batzordearen lan-bilkura batera etorri ziren ikas-

ketak direla-eta atzerritar adingabeak aldi baterako hartzeko nafar elkarten ordezkariak; esan zigutenez, arazoak dauzkate adingabe horiek gure erkidegoan kirol diziplina batzuetan federatzeko.

Nafarroako Kirolaren Institutua zer ari da egiten egoera hori konpontzeko?

Iruñean, 2021eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiko erabakia, Gizarte Entitateen Plataformari Nafarroako Parlamentuko Domina emateko, plataforma horren ibilbide osoaren aitortpen gisan.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko azaroaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Gizarte Entitateen Plataforma (PES) honako hauek osatzen dute: Garapenerako Gobernuaz Kanpoko Nafarroako Erakundearen Koordinakundea (CONGDN) osatzen duten sareak, Pobreziaren eta Gizarte-bazterketaren aurkako Nafarroako Sarea, Desgaitasuna duten Pertsonak ordezkatzen dituzten Entitateen Nafarroako Batzordea (CERMIN) eta Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS).

Lau sareek gure erkidegoko 160 erakunde baino gehiago ordezkatzen dituzte, garapenerako nazioarteko lankidetzaren, gizarte-bazterketaren, desgaitasunaren, ekonomia sozial eta solidarioaren, migrazioaren eta osasunaren arloetan lan egiten dutenak. Plataformak gizarte lan garrantzitsua egiten du desberdintasun egoerak hobetzeko gure erkidegoan eta herrialde pobretuetan, erakundeekin lankidetzan. Izan ere, joan den otsailaren 20an Nafarroako Parlamentuak Pobreziaren eta Desberdintasunaren aurkako Nafarroako Ituna sinatu zuen Plataforma osatzen duten sareekin batera.

Itun hori aurrean bertan hasi eta 2030. urtera bitartean gauzatu beharko da, eta talde parlamentarioen eta gizarte kolektiboaren artean lantzen jarraituko da. Plataforma osatzeko balio izan zuen

helburua partekatzen dute talde parlamentario guztiek: pertsonen lehentasuna ematen dion gizarte-eredu bat lortzea.

Pairatzen ari garen pandemiak zerbitzu publiko sendoak edukitzearen garrantzia gogorarazi digu. Gainera, ikusi dugu Nafarroak zorte handia daukala elkarte ehun garrantzitsu bat edukitzeagatik, elkarte horiek iristen direlako instituzioek heltzen ezinezkora. Errekonozimendua merezi duen lana, ez bairik gabe.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Gizarte Entitateen Plataformari Nafarroako Parlamentuko Domina ematea, aitortpena egiteko plataformaren ibilbide osoari eta hura osatzen duten talde eta entitate guztiei, pertsona zaurgarrienekin egiten duten lanagatik eta erakundeekin lankidetzagatik. Hori dela eta, heldu den abenduaren 1ean, asteazkenean, 11:00etan, Domina emateko ekitaldia egingen da Osoko Bilkura Aretoan, Nafarroako Gobernu Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuaren aholku emateko SARS-CoV-2 txostena betez.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

